

## **2021EKO APIRILAREN 28KO OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hogeita bateko apirilaren hogeita zortzian.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Asier Aguirre Murguiondo.

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Erkuden Agirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

### **EZ BERTARATUTAKOAK:**

Iñaki Zabalo Echezarreta.

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko 19:00etan

**AMAIERA ORDUA:** Arratsaldeko 20:00etan.

Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

### **GAI ZERRENDA:**

- **Aurreko bilkurako aktaren onarpena, hala badagokio: 2021eko otsailaren 24ko Ohiko Bilkurari dagokion akta.**

Aipaturiko akta aurkezten da Bilkura honetan onartzeko.  
Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu da.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
  - 2021eko 8 zenbakitik 16 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira (Ebazpenen bitartez onartuta dauden 3.000,00 eurotik gorako fakturei dagokienez, informazio zehatza azken puntuan emango da)

**. Eguzkitza baserri inguruan izandako luizia konpontzeko emandako obra baimena dela eta, obra zerga eta abar barkatzeko eginiko eskaerari buruzko erabakiaren onarpena.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

2021eko martxoaren 12ko 11-2021 zenbakidun Alkatetzaren Ebazpena bitartez onartu zela Eguzkitza baserri inguruan izandako luiziarri konponbidea emateko aurkeztutako obrak egiteko baimen eskaera onartzea, besteak beste, bi baldintza hauekin:

**1.2.-** Obrak hasi aurretik eta 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, 500,11 euroko fidantza jarri behar da.

**1.3.-** Dagokion udal obra zerga likidatzea behin-behineko izaerarekin, zenbatekoa 1.489,67 euro izanik (exekuzio materialaren aurrekontuaren %3,a). kopuru hori obrak hasi aurretik ordaindu beharko da.

2021eko martxoaren 23an korreo elektronikoko bitartez, eskatzailearen ordezkariak, fidantza eta eraikuntza zerga barkatzeko eskaera aurkeztu duela.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Eraikuntza zerga borondatezko zerga bat dela, eta nahiz eta indarrean dagoen ordenantza fiskalean ez den salbuespenik aurreikusten, Uztailaren 5eko Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauaren 5. Artikuluak aurreikusten dituela hainbat hobari aplika daitezkeela zirkunstantzi bereziak ematen diren kasuetan, beti ere erabakia Udal Osoko Bilkurak onartu beharko duelarik.

Kasu honetan ere garbi ikusten dela egin behar diren lanak luizi batzuen ondorioz sortu direla, hau da kalte batzuk izan ondoren, eta azken finean obrak egin behar direla epai bat betetzeko.

Hori dena kontuan izanda, irizten dela kasu hau izan daitekeela eraikuntza zergaren ordainketa salbuetsita uzteko Foru Arauaren 5. Artikuluan aurreikusitako salbuespenetako bat, eta kriterio hau erabili behar dela suertatzen diren antzeko kasuetan.

Fidantza barkatzeko eskaerari dagokionez. Obrak hasi aurretik eta 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, kasu honetan 500,11 euroko fidantza jarri behar da, eta hori Legearen agindu bat izanda ez dago Udalaren esku hori barkatzea, eta edozein kasuan fidantza bat denez, obra bukaeran konprobatzen denean baldintza hori ondo bete dela, fidantza itzuli egingo da.

Kontuan hartuta baita ere, gai honen harira Javier Aranburu jaunarekin 2021-04-21ean izandako bilera, eta han hitz egindako guztia.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez honako hau,

### **ERABAKI DUTE:**

- 1.- Eraikuntza zerga ez kobratzea, eta horren arabera bidalitako 1.489,67 euroko behin-behineko likidazioa bertan behera uztea.
- 2.- Fidantzaren kasuan, 11-2021 Alkatetza Dekretuan jasotako baldintza berrestea.

**. Goiekik proposatutako bi kapital gehikuntzak, lehentasunezko harpidetza eskubideari uko egin eta "kapital soziala" sozietatearen Estatutuetako 5. Artikuluaren aldaketarako erabakiak onartzea.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

2021eko martxoaren 1eko Goierriko Ekimena S.A.ren Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatutarioak betetzeko asmoz, 2021eko ekainaren 7an Ohiko Batzar Orokorra ospatuko dela. Batzar Orokorrerako deialdiarekin batera 2021eko martxoak 16ko datako Kapital Gehikuntzen txostena eransten da, non, besteak beste, hitzez-hitz honako eskaera luzatzen den:

"Udal bakoitzeko Osoko Bilkurak aurkeztutako kapital-gehikuntzak onartu beharko lituzkete, lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egin beharko liokete eta "kapital soziala" sozietatearen Estatutuetako 5. Artikulua onartu beharko lukete"

### **KONTUAN HARTUTA:**

Mutiloako Udala ados dagoela kapital-gehikuntzak egin ondoren, aurkeztu den txostenean jasotzen den kapital sozialaren banaketarekin.

Kapital-gehikuntza biak egin eta ordaindu ondoren, estatutu sozialen 5. Artikulua honela idatzita geratuko dela: "Kapital soziala MILIOI BAT BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMOTAKOA izango da, erabat harpidetuta eta ordainduta, kapital hori berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpi akzioetan zatituta dagoela ulertuko da, korrelatiboki zenbatuko dira, batetik berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpira, biak barne, sei euro eta zentimo bateko balioarekin, akzio bakoitza zatiezina da".

Mutiloako Udalak egin beharreko 5.493,14 euroko aportazioa dagoeneko ordainduta daukala (erdia 2020 eta beste erdia 2021ean)

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez honako hau,

**ERABAKI DUTE:**

1.- Aurkeztutako kapital-gehikuntzak onartzea: 1.322,20€ Udalak Sozietatearen aurka duen kredituaren kargura eta 5.493,14euroko eskudiruko kapital sozialaren ondare ekarpena egitea, lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitea eta "kapital soziala" sozietatearen Estatutueta 5. Artikuluaren aldaketa onartzea aurkeztu den eran.

2.- Erabaki hau Goierriko Ekimena S.A.ri jakinaraztea.

- **Errotatxoko obraren zati baten esleipena onartzea (errota eta labea berreskuratzea eta balioan jartzea).**

Kontuan hartuta, obra honi buruz aurkeztutako 3 aurrekontu hauek:

1.- HIRUGARRENA: Ondartez S.L.

AURREKONTUAREN PREZIOA: 13.200 euro (BEZ aparte).

AURREKONTUAREN DATA: 2021-03-26.

2.- HIRUGARRENA: Canterias Donosti.

AURREKONTUAREN PREZIOA: 11.869 euro (BEZ aparte).

AURREKONTUAREN DATA: 2021-02-26.

3.- HIRUGARRENA: Rehabilitaciones Ruben.

AURREKONTUAREN PREZIOA: 12.970,00 euro (BEZ aparte)

AURREKONTUAREN DATA: 2021-02-25

Kontuan hartuta baita ere, 2021eko aurrekontuan badagoela nahiko kireditua 1.0000.643.432.00.01.2020 partidan eta Kontratu Txikia sailkapenean sartzen dela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal-kideek aho batez, honako hau,

### **ERABAKI DUTE:**

#### **BAKARRA:**

ERROTATXOKO ERROTA ETA LABEA BERRISKURATZEA ETA BALIOAN JARTZE LANAK Canterias Donostia enpresari esleitzea 11.869,00 eurotan BEZ aparte.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Honako hau da aurkeztu den zerrenda, argitu da presa kontua dela eta, batzuk Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez bideratu ondoren dagoeneko ordainduta daudela:

09/2021 ALKATETZAREN EBAZPENAREN BITARTEZ ONARTUTA:	
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	3.144,97
14/2021 ALKATETZAREN EBAZPENAREN BITARTEZ ONARTUTA.	
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	30.437,79
ZUZENEAN UDAL OSOKO BILKURARA AURKEZTEN DIRENAK:	
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	21.079,65

Galde-Erregu puntura pasatu aurretik, idazkari-kontuhartzaileak adierazi du ibilgailuen helbide aldaketak eroldari egokitzeko udaletxetik egiteko aukera jarri duela trafikoko zuzendaritzak Donostira joan beharrik izan gabe, beti ere Trafikoko Jefatura Zentraleko eta Toki Entitate eta Probintziako Espainiako Federazioaren artean informazio trukaketa eta administrazio elkarlanerako sinatutako lankidetzak hitzarmenera atxikitzen bada. Alkate jaunak jarraian adierazi du komeni dela lehenbailehen egitea eta erabaki hau Udal Osoko Bilkura honetan hartzea.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez, onartu dute puntu hau gai zerrendan sartzea eta Trafikoko Jefatura Zentraleko eta Toki

Entitate eta Probintziako Espainiako Federazioaren artean informazio trukaketa eta administrazio elkarlanerako sinatutako lankidetzaren hitzarmenera atxikitze erabakia onartzea, alkate jaunari ahalmena emanaz dagokion hitzarmena sinatzeko.

- **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.

Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Mutiloako Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

### **ZIURTATZEN DUT:**

Udal Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 28an eginiko Ohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

---

**EGUZKITZA BASERRI INGURUAN IZANDAKO LUIZIA KONPONTZEKO EMANDAKO OBRA BAIMENA DELA ETA, OBRA ZERGA ETA ABAR BARKATZEKO EGINIKO ESKAERARI BURUZKO ERABAKIAREN ONARPENA.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

2021eko martxoaren 12ko 11-2021 zenbakidun Alkatetzaren Ebazpena bitartez onartu zela Eguzkitza baserri inguruan izandako luiziarri konponbidea emateko aurkeztutako obrak egiteko baimen eskaera onartzea, besteak beste, bi baldintza hauekin:

**1.2.-** Obrak hasi aurretik eta 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, 500,11 euroko fidantza jarri behar da.

**1.3.-** Dagokion udal obra zerga likidatzea behin-behineko izaerarekin, zenbatekoa 1.489,67 euro izanik (exekuzio materialaren aurrekontuaren %3,a). kopuru hori obrak hasi aurretik ordaindu beharko da.

2021eko martxoaren 23an korreo elektroniko bitartez, eskatzailearen ordezkariak, fidantza eta eraikuntza zerga barkatzeko eskaera aurkeztu duela.

### **KONTUAN HARTUTA:**

Eraikuntza zerga borondatezko zerga bat dela, eta nahiz eta indarrean dagoen ordenantza fiskalean ez den salbuespenik aurreikusten, Uztailaren



5eko Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko Zergaren 15/1989 Foru Arauaren 5. Artikuluak aurreikusten dituela hainbat hobari aplika daitezkeela zirkunstantzi bereziak ematen diren kasuetan, beti ere erabakia Udal Osoko Bilkurak onartu beharko duelarik.

Kasu honetan ere garbi ikusten dela egin behar diren lanak luizi batzuen ondorioz sortu direla, hau da kalte batzuk izan ondoren, eta azken finean obrak egin behar direla epai bat betetzeko.

Hori dena kontuan izanda, irizten dela kasu hau izan daitekeela eraikuntza zergaren ordainketa salbuetsita uzteko Foru Arauaren 5. Artikuluan aurreikusitako salbuespenetako bat, eta kriterio hau erabili behar dela suertatzen diren antzeko kasuetan.

Fidantza barkatzeko eskaerari dagokionez. Obrak hasi aurretik eta 112/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera, kasu honetan 500,11 euroko fidantza jarri behar da, eta hori Legearen agindu bat izanda ez dago Udalaren esku hori barkatzea, eta edozein kasuan fidantza bat denez, obra bukaeran konprobatzen denean baldintza hori ondo bete dela, fidantza itzuli egingo da.

Kontuan hartuta baita ere, gai honen harira Javier Aranburu jaunarekin 2021-04-21ean izandako bilera, eta han hitz egindako guztia.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez honako hau,

### **ERABAKI DUTE:**

- 1.- Eraikuntza zerga ez kobratzea, eta horren arabera bidalitako 1.489,67 euroko behin-behineko likidazioa bertan behera uztea.
- 2.- Fidantzaren kasuan, 11-2021 Alkatetza Dekretuan jasotako baldintza berrestea.
- 3.- Erabaki honen berri interesatuei ematea, ohartaraziz bide administratiboari amaiera ematen dion azaldutako behin-betiko erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daitekeela Donostiako administrazioarekiko auzitarako epaitegi egokian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. Eta 46. Artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri

Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Hori guztia, zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsoak aurkezteari kalterik egin gabe.

---

Mutiloa, 2021eko apirilaren 28a

O.E.  
ALKATEA

Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Mutiloako Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

### **ZIURTATZEN DUT:**

Udal Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 28an eginiko Ohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

---

**GOIERRIKO EKIMENA S.A.K PROPOSATUTAKO BI KAPITAL GEHIKUNTZAK, LEHENTASUNEZKO HARPIDETZARI ESKUBIDEARI UKO EGIN ETA "KAPITAL SOZIALA" SOZIETATEAREN ESTATUTUETAKO 5. ARTIKULUAREN ALDAKETARAKO ERABAKIAK ONARTZEA.**

### **HONAKO HAU IKUSITA:**

2021eko martxoak 1eko Goierriko Ekimena S.A.ren Administrazio Kontseiluan onartutakoarekin bat, eta prezeptu legal eta estatutarioak betetzeko asmoz, 2021eko ekainaren 7an Ohiko Batzar Orokorra ospatuko duela adierazten du. Batzar Orokorrerako deialdiarekin batea 2021eko martxoak 16ko datako Kapital Gehikuntzen txostena eransten da, non, besteak beste, hitzez-hitz honako eskaera luzatzen den:

"Udal bakoitzeko Osoko Bilkurak aurkeztutako kapital-gehikuntzak onartu beharko lituzkete, lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egin beharko liokete eta "kapital soziala" sozietatearen Estatutuetako 5. Artikulua onartu beharko lukete"

### **KONTUAN HARTUTA:**

Mutiloako Udala ados dagoela kapital-gehikuntzak egin ondoren, aurkeztu den txostenean jasotzen den kapital sozialaren banaketarekin.

Kapital-gehikuntza biak egin eta ordaindu ondoren, estatutu sozialen 5. Artikulua honela idatzita geratuko dela: "Kapital soziala MILIOI BAT BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMOTAKOA izango da, erabat harpidetuta eta ordainduta, kapital hori berrehun eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpi akzioetan zatituta dagoela ulertuko da, korrelatiboki zenbatuko dira, batetik berrehun

eta berrogeita hamazortzi mila zortziehun eta berrogeita zazpita, biak barne, sei euro eta zentimo bateko balioarekin, akzio bakoitza zatiezina da”.

Mutiloako Udalak egin beharreko 5.493,14 euroko aportazioa dagoeneko ordainduta daukala (erdia 2020 eta beste erdia 2021ean)

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez honako hau,

### **ERABAKI DUTE:**

1.- Aurkeztutako kapital-gehikuntzak onartzea: 1.322,20€ Udalak Sozietatearen aurka duen kredituaren kargura eta 5.493,14euroko eskudiruko kapital sozialaren ondare ekarpena egitea, lehentasunezko harpidetza-eskubideari uko egitea eta “kapital soziala” sozietatearen Estatutuetakako 5. Artikuluaren aldaketa onartzea aurkeztu den eran.

2.- Erabaki hau Goierriko Ekimena S.A.ri jakinaraztea.

---

Mutiloa, 2021eko apirilaren 28a

O.E.  
ALKATEA



Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal-kideek aho batez, honako hau,

**ERABAKI DUTE:**

**BAKARRA:**

ERROTATXOKO ERROTA ETA LABEA BERRESKURATZEA ETA BALIOAN JARTZE LANAK Canterias Donostia enpresari esleitzea 11.869,00 eurotan BEZ aparte.

---

Mutiloa, 2021eko apirilaren 28a

O.E.  
ALKATEA

## **SOLICITUD DE ADHESION AL CONVENIO**

En Sesión del Pleno del Ayuntamiento de Mutiloa celebrado en fecha 28 de abril de 2021, se ha acordado solicitar la adhesión íntegra al Convenio suscrito entre el Organismo Autónomo Jefatura Central de Tráfico y la Federación Española de Municipios y Provincias para el intercambio de información y la mutua colaboración administrativa.

## **HITZARMENARI ATXIKITZEKO ESKAERA**

Mutiloako Udal Osoko Bilkurak, 2021eko apirilaren 28an egindako batzarrean, erabaki zuen Trafikoko Jefatura Zentraleko Erakunde Autonomoa eta Toki Entitate eta Probintziko Espainiako Federazioaren artean informazio trukaketa eta administrazio elkarlanerako sinatutako lankidetzaren hitzarmenari atxikitzea.

Mutiloa, 2021eko apirilaren 29a

ALKATEA

Sinatuta: Iñaki Ugalde Alustiza.

JEFATURA PROVINCIAL DE TRAFICO  
PLAZA JULIO CARO BAROJA-2  
20018.- DONOSTIA.

